



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Lehendakaria
El Presidente

Piarres Lafitte iaun apezari

USTARITZ

Gasteiz-en 1983-ko Abenduak 13

Ene iaun maite ta agurgarri:

Zure eskutiz bihozkorra hartu bezain laster ihardes-
tera noakizu, lehenbizi eskerrak emanaz orain dela ilabete ba
tzu Ustaritzen egin zeniguzun abegi onagatik.

Lotsaz beterik nauzu hitz egin genuenez ez dizudala-
ko berririk oraindano igorri. Ez uste, ordea, geldirik egon -
naizenik. Lortu ere lortu dut Haraneder-en atzunduriko esku-es-
kribu hori argitaratzeko behar den sosa. Eusko Jaurlaritzako -
kultur Sailekoen ustetan, Euskaltzaindia arduratu beharko li-
tzake argitalpen honetaz. Beraz, Euskaltzaindiko idazkaria ne-
rekin iarriko da harremanetan zurekin arazo hau hanbat laster-
ren burutzeko. Ikus dezakezunez honako hau ez da berri gaiztoa.

Zure idazkian adierazten didazunaz bat nator, Her-
riari buruz diozunaz batez-ere; ahalegin guztiak egingo ditut
behar duzuen laguntzaren lortzeko. Horretarako iadanik iarrria -
nauzu Jaurlaritzako Aingeru Zabalarekin harremanetan. Arazoa es
ku onetan utzi dudalakoan nago.

Besteak beste, zure lanen biltzea ta sailkatzea be-
har beharrezkoak direla iruditzen zaizkit. Otoi, ez utzi, ez lu



.....

-zatu lan hori! Euskal Kultur alorrean zer gertatzen ari dan
nik baino askoz hobeki dakizu-ta. Zure lanak esku-arteak be-
har ditugu sarri.

Zu ikustera lagundu nindun Jose Lasa adiskide mina,
urriaren 28-an S. Simon eta S. Juda-ren egunean hil zaigun.
Otoi bat bere arimaren alde eska dizut. Euskaltzale zintzo -
batek alde egin digu. Jainkoak har dezala bere magal amultsuan.

Eta egungoz besterik gabe, laster berri gehiago izan-
go duzulakoan agur egiten dizut. Eguberrietako ikusten ez ba-
gera har ezazu nere zorionik beroenak.

Juan, S. / au



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
Lehendakaria
El Presidente

Gasteizen, 1984.eko Ekainak 28

Piarres Lafitte Jaun Kalonjea
Baiona

Ene Jaun maite eta agurgarria:


Iazko azkenaldiaz gero eskuartean darabiltzagun arazoez mintzo natorkizu berriz oraiko honetan.

Haraneder-en TESTAMENTU BERRIaren argitalpena egiteko bideak aintzina doazi, laster burutzekotan.

Bertzalde, eta HERRIaren sustengatzeko laguntzari buruzkoetan, orduan egindako lehen urratsak bere fruitua eman dute. Hala ere, eta horren ardura zuen Aingeru Zaba la Jaunak Unibersitateko bere irakas-aulkira itzultzeko Jaurilaritza utzi duenez gero, segurik ezaguna duzun Martin Ugalde jauna duzu afer hori orain esku artean duena. Laguntza emateko erabakia iadanik hartuta dago, eta hamabortz egun barru edo Ugalde Jauna bera zuekin zuzenean harremanetan jarriko da, nola gauzatu behar den finkatzeko.

Gure Euskal Herriaren onerako guztietan ahal dezan neurrian laguntzeko beti gertu izango nauzulela badakizu. Ez al digu Jainkoak horretarako ezinbertzekoa dugun bere laguntza ukatuko.

Bertzerik gabe onar ezazu, jauna, nire betiko adiskide-agurra


Juan José Pujana Arza